

Ekimena, berrikuntza eta sorkuntza bilduko ditu Krea Bidasoa 2015ek maiatzaren 7an. Honakoa da egitaraua.


Ekimena Ficoba Erakustazokan izango da. 9:00etan hasiko da, eta 20:00etan bukatu.

9h-11h00	Ezagutu bezeroak enpatiaren mapari esker. Merkatuaren analisi erreminta praktikoa, proiektu ekintzaileei zuzendua. Dinamizatzailea: Irene Martínez.
10h00-13h30	Bidasoa Kontract – Mugaz gaindiko azpikontratazio industrialeko topaketa. Mugaz gaindiko merkatuaren aukerak ezagutu, eta merkataritza loturak eratu presente egongo diren enpresa frantziarrek. Dinamizatzailea: ieTeam kontsultoreak.
11h-11h30	Kafea hartzeko etena.
11h30-13h	Finantzazio mahai ingurua. Finantzazio erakundeetako ordezkarien parte hartzearekin, finantzaziora eta proiektu enpresarial berriak sortzera bideratutako produktuak ezagutu ahal izango ditugu. Dinamizatzailea: Bidasoa Bizirik.
11h30-13:30	Irun Sasoian. Kirolaren Foro Profesionala, kirol munduarekin harremana duten erakundeei eta pertsoneri lotuta. Dinamizatzailea: IrunKirol-Irungo Udala.
13:30 – 15:30	Nire irribarrea salduko dizut. Komertzioan ilusioa kudeatzeko teknikak eta baliabideak. Dinamizatzailea: Gipuzkoako Merkataritza Federazioa-Piek Consultores.
14h30-17h30	KSAREA. Pertsona eta proiektu parte hartzaileei zuzendutako parte hartze eszenatokia. Dinamizatzailea: KBIDASOA Kontsultoria Artisaua.
15h30-18h	IRUN Factory. Artista naiz. Nola egin babes eskaintza bat? Dinamizatzailea: Conexiones Improbables.
18,20h	Powered by PechaKucha 2015. Proiektu berritzaileen aurkezpenak PechaKucha formatoan: 20 irudi eta 20 segundo irudi bakoitzeko. Harrigarria! Dinamizatzailea: InnovaGenio

20h	Aurrera egin...Hurrengo urtera arte!
-----	--------------------------------------

KREA GUNEA ETA ESPAZIOAK:

Gai ezberdinetako 5 gunetan banatuko dituzte aurten Krea espazioak. Kontractando, Kreando, Produciendo, Kolaborando eta Deskonektando izenak jarri dizkiete.



INFORMAZIOA GUNE BAKOITZEAN

KONTRACTANDO

Kontaktu eta aukeren bila, berrituz aurrera egiteko espazioa”.

Bidasoa Kontrack - Mugaz gaindiko azpi kontratatze industrialeko topaketa, lotura komertzialak eratzeko.

Mugaz gaindiko merkatuaren aukerak ezagutzera emango dituzte, eta presente dauden enpresa frantziarrekin lotura komertzialak eratzeko aukera egongo da. Inguru geografiko hurbileko enpresen arteko harreman komertzialak indartuko dira, baina nazioarteko merkatuetakoak ere.

KREANDO

“Sorkuntza prozesuen bila, berrituz aurrera egiteko espazioa”.

Bidasoa eskualdeko ekintzailatza eta sormena aurkeztuko dituzte espazio honetan.

Irun Factory: Irun Factory zer den azalduko dute, xehetasunekin eta irudiekin. Sorkuntzarako, Formaziorako, Zabalpenerako, Produktziorako eta ekonomia sortzailearen eremuko Proiektuak Kokatzeko espazioa da.

Hondarribia Craft: Artisauen eta diseinatzaileen arteko elkarlanaren emaitza izan diren 6 proiektuak aurkeztuko dituzte espazio honetan. Hondarribiaren oroigarria sortzeko helburua izan dute.

Powered by PechaKucha: eskualdeko proiektu berritzaileak eta sortzaileak erakutsiko dituzte espazio honetan. 18:20etan izango da, PechaKucha 20x20 formatuko presentazioen bidez, 20 irudirekin eta 20 segundorekin irudi bakoitzeko.

PRODUCIENDO

“Kontsumo arduratsu eta jasangarri baten bila, berrituz aurrera egiteko espazioa”.

2014 eta 2015 arteko proiektu nagusietako batzuk aurkeztuko dituzte espazio honetan, gizartearen aldetik eskualde arduratsua eta jasangarria izateko asmoz egindakoak. Martxan jarritako ekimenetan parte hartu duten 50 komertzioak, produktoreak eta enpresak ere nabarmenduko dituzte.

Nekazaritzako elikagaien tokiko sektorearen ikuspegi orokorra

Bidasoa eskualdean nekazaritzako elikagaien sektorearen balio kateak duen ordezkari eta enpresen kopurua.

GureGOURMET. Tokiko nekazaritza produktuaren promozioa

Lurraldeko 20 enbaxadorek tokiko produktuen kalitatea probatzeko eta zabaltzeko lana hartu dute. Bidasoa-Sud Pays Basque lurraldeko 17 enpresetako produktuak izan dira. Irabazleari diploma emango diote.

Energia aurreztea merkataritzan

Hondarribiko 6 komertzioak eta Mercalrun-eko 14 postuk ikerketa egin dute haien azpiegituretan energia aurrezteko.

Produktzio ekoeraginkorra nekazaritzako elikagaien industrian

Nekazaritzako elikagaien sektoreko enpresa emankorrek produkzio ekoeraginkorrerako neurriak hartu dituzte haien azpiegitura eta prozesuetan.

Bidasoa Gourmet Experience

Tokiko produktuaren eta baliabideen balioa azpimarratzen ari diren 8 esperientzia turistikoen enogastronomiko.

Bidasoako Produktuaren Elkarte

Euskadi Gastronomikako Produktuaren Elkartearen parte diren eskualdeko jatetxeak eta tabernak. Turismo enogastronomikoa sustatzeko ekimena da.

KOLABORANDO

“Aliantzak sortzearen eta elkarlanaren bila, berrituz aurrera egiteko espazioa”.

Eskualdean, sektore ezberdinen artean aurrera eramandako kolaborazio proiektuen eta berrikuntzaren lagina irudikatuko dute espazio honetan.

Irun Sasoian-Kirolaren sektorea

Komunitateko ekimena, Irunen jarduera fisikoaren aldeko bizi baldintzak sortzea bilatzen duena, pertsona aktiboa izatearen aukera erraza izan dadin. Irun Sasoian III. Foro Profesionalaren Aurkezpena, baita aurreko urteetan Foroan parte hartu duten enpresena ere.

Enpresa nautikoak Bidasoan-Sektore nautikoa

Sektore nautikoan aurrera eraman dituzten ekintzak, 2013an sortutako Plan Estrategikoaren eratorriak; ate irekietako jardunaldiak, taldekako bisitak beste komunitateetara, Mugabian proiektua eta enpresa parte hartzaileak, Mugaz gaindiko Foro Nautikoa...

Arretxe Ugalde Berrikuntza Enpresen zentroa-Zerbitzu aurreratuen sektorea

Arretxe Ugalde zentroaren deskribapena. Oinarri teknologikoa duten enpresa berri gehienak daude bertan. Nola sartu daiteke zentro honetan, eta zein enpresa dago gaur egun bertan?

Berrikuntzari Babesa emateko Proiektuak eta Enpresak-Sektore Industrialia

Eskualdeko zazpi enpresa industrialek proiektu berritzailea egin dute aurten, zerbitzu aurreratuetako enpresa batekin elkarlanean. Enpresak zeintzuk diren eta zein proiektu garatu duten ezagutuko dugu.

BidaOsoa-Pertsonei zuzendutako zerbitzuen sektorea

Behar ezberdinak dituzten pertsonei zuzendutako zerbitzuak eskaintzen dituzten eskualdeko enpresen, komertzioen eta profesionalen taldea. Parte hartzen duten 14 enpresak eta eskaintzen dituzten zerbitzuak ezagutzeko aukera egongo da.

Zerbitzu aurreratuetako enpresak – Berrikuntzaren sektorea

Zerbitzu Aurreratuen sektoreko enpresen kolaborazio proiektua. Ondorengo helburuak ditu: garapenean sakontzea, kolaborazio/sinergia espezifikoen aukerak zehaztea, enpresen arteko kolaborazioan oinarritutako kultura irekian aurrera egiten jarraitzea. 6 izan dira lan talde nagusia osatu duten zerbitzu aurreratuen sektoreko enpresak.